



INIGO AZKONA

BANKA ETIKOA

«Sareak» libreta

Aurreztea solidarioa denean

Euskal Herria aitzindaria da ekimen askotan. Hala, banku eta aurrezki kutxen ohiko zerbitzu tradizionalaz gain, bestelako banku alternatibo eta solidarioa baliatzeko eta, beraz, aurrezle etikoa eta solidarioa izateko aukera dago, Fiare-ren Sareak libretari esker.

DANIEL UDALAITZ

HERRI EKIMEN ASKOTAN, Euskal Herria herrialde aitzindaria izan da iraganean eta da gaur egun ere. Aurreztaileek beti eskura izan dituzte banka tradizionala, aurrezki kutxa historikoak eta kreditu kooperatiba berritzaileagoak. Herri bakoitzean batzuen eta besteen hainbat bulego daude. Alabaina, azken bi urteotan, herrialde honetan banka solidarioa eta alternatiboa erabiltzeko aukera zabaldu da, aurreztaileei beren banku inbertsioak jomuga solidarioetara bideratzea ahalbidetzen diena. Beraz, egun, aurrezle etikoa

eta solidarioa izateko aukera dago, Fiare Banka Etikoak merkaturatu duen Fiare-ren Sareak libretaren bidez.

Ez dugu sekula jakiten gure aurrezkiak, batez ere bankuetako-

Sareak libretako interesen %100 laguntza sozialetarako, kooperaziorako edo ingurumena babesteko ekimenak sustatzeko erabiltzen dira

ak, zertara bideratzen diren. Maiz, sektore arriskutsuetara, hala nola armak fabrikatzera, bideratzen dira, aurreztaileei galdetuz gero, inolaz ere onartuko ez luketen arren. Aurrezki kutxek eta kooperatibek, beren estatutuen eraginez, funtzio sozialagoa bete behar dute, baina batzuetan horiek ere aurreztaileak jakinez gero onartuko ez lituzkeen sektoreetan inbertitzen dute. Hain zuzen, ekimen alternatibo eta solidario hau sortzeaz bat, zenbait aurrezki kutxa, esaterako, BBK eta Nafarroako Kutxa, nola-

Bizkaian 3.250 familiari eman zien laguntza Sareak libretak

Bizkaian, Sareak-ek Caritas Bizkaia burutzen ari den abegi proiektu bat sustatzen du, pobrezia eta bazterketaren eremuan. Abegi proiektuan funtsezko hainbat ekintza burutzen dira: entzutea, informazioa eta orientabideak eskaintzea, laguntza soziala, oinarriko beharrak asetzeko laguntza ekonomikoa, ekimen sozialetan parte hartzea, beste aukera batzuk bilatuz salatzea eta abar. 2008an Sareak-ek 3.250 familiari eman zien laguntza. Laguntza ekonomikoei dagokienez, guztira 60.908 euro aurreratu zituzten eta otsailean, dagoeneko, horietatik 26.937 euro berreskuratutako zituzten. Aurrerapen horiek hezkuntza eta gizarte laguntza prozesuetara bideratzen dira. 2008an laguntza ekonomikoei %51 egin dute gora, aurreko urteekin alderatuta. Krisialdiaren eragina jotzen da hazkunde honen arrazoitzat. Bizkaiko Caritasak 1.500.000 eurotik gorako gastua egin zuen 2008an.

Nafarroako REASen aldeko Fiare-ren Sareak libre-ta helburu bikoitza duen produktu finantzarioa da: aurreztaileei beren libreten interesari uko egiteko aukera ematea, eta interes horiek bankuek onartu ezin dituzten proiektuak sustatzeko erabiltzea, kopuru txikiak direlako, itzultzeko epe laburrak dituztelako edo berme nahikorik ez dutelako. Horrenbestez, proiektu horiek ohiko bankak emango ez liekeen mailegu solidarioa eskuratzen dute –bideragarritasuna aztertu ondoren–, bestela balio soziala galduko bailukete. Nafarroan “berme funts solidarioa” sortu da, proiektu horien maileguak itzuliko direla bermatzeko. Orain arte proiektu guztiak itzuli dute mailegua. Nafarroako Visualiza izeneko komunikaziorako proiektu alternati-boak 15.000 euroko mailegu solidarioa eskatu zuen eta 2008an itzultzeko epea bete zuten. Halaber, Fiare eskatuta, Asturiasen beste ekimen bat bermatzea adostu zuten: Ecolojari izeneko autoenplegu enpresa.

baiteko produktu “solidarioak” eskaintzen hasi dira.

Zer da Fiare-ren “Sareak” libreta eta nork inberti dezake horietan?

Fiare-ren Sareak libreta 2007an sortu zen bi helbururekin. Batetik, aurrezle etiko eta solidarioak izateko aukera jende gehiagori zabal-tzea, 1.000 euroko gutxieneko inbertsioen bidez. Bestetik, ohiko banka tradizionalaren “arisku” ideia gainditzea, finantzek baztertu-tako proiektuak eta ingurumenarekin lotura estua duten ekimenak sustatzeko.

Nork inberti dezake Sareak-en? 1.000 euroko gutxieneko kopurua eman nahi duen pertsona nahiz entitate orok inberti dezake Sareak libretan. Sareak aukeratzen duten aurrezle erantzuleek interesen %100 interes sozial handiko, kooperaziorako edo ingurumena ba-besteko ekimenak sustatzeko erabi-liko direla erabakitzen dute.

Sareak libretak sustatzen dituen proiektuak

Balitzko proposamenak lurralde bakoitzean eta Sareak-ekin elkarla-nean lantzen dira, eta proposamen horiek itxi ondoren, produktua aukeratzen duten bezeroei aukera gisa eskaintzen zaizkie. Proiektu guztiei buruzko informazioa

www.projectofiare.com helbidean kon-sulta daiteke.

Txosten honetan, libreta solidario honen bezeroek beren interesak emanez sustatzen dituzten hainbat proiektu jaso nahi ditugu. Askotari-koak eta zehatzak dira, eta horietako batzuk, oso hurbilekoak euskal inbertitzaile solidarioentzat. Hauek dira proiektuak: Mundu Bat: El Sal-

Sareak-en bidez, El Salvadorren biziraupen sektoreko mikroenpresak indartzeko ari dira lanean, mikrokredituen, trebakuntzaren eta laguntza teknikoaren bidez

vador eta Nikaragua; Nafarroako REASen berme funts solidarioa; Bizkaiko Caritasen abegi proiektua. Horrez gain, Kataluniako Fiarek beste aukera batzuk eskaintzen ditu, hala nola: Acció Solidaria contra L`Atur, ahuldutako kolektiboan alde; CAF (Finantzen Autogestio-ko Komunitatea), finantzak beren kabuz kudeatzen dituzten komuni-tateen zerbitzura; eta GAP (Ekono-mia Proiektuak Sustatzeko Taldeak), mailegu solidarioak kudeatzen dituzten pertsonen zerbitzura.

Halaber, beste aukera solidario batzuk badira Bidezko Merkataritza erakundeetan zein mikrokredituen eremuan. Bidezko Merkataritzaren esparruan, IDEAS (Ekonomia Alternatibo eta Solidarioako Eki-menak) proiektua dago, eta komu-nitate ahulenetako pobrezia-aren arrazoiak desagerraraztea du helbu-ru. Mikrokredituei dagokienez, “Paz y Esperanza” solidaritate funtsak ekimen bat dauka, enplegu eta autoenplegu proiektuen finantza-zioaren bidez, pertsona, familia eta talde marjinalak laguntzeko.

Nikaragua eta El Salvadorren, biziraupena helburu

Sareak-en bidez, Mundu Bat GKEa Nikaraguan eta El Salvado-rren burutzen ari den bi proiektu bultza daitezke. El Salvadorren biziraupen sektoreko –nekazaritza eta abeltzaintza sektoreko– mikro-enpresak indartze aldera ari dira lanean, mikrokredituen, trebakun-tzaren eta laguntza teknikoaren bidez. Maileguak 229 dolarrekoak dira, batez beste. Nikaraguako proiektuaren xedea elikagaien segurtasuna hobetzea da. Maile-guak, batez beste, 250 eta 700 dolar bitartekoak dira. Honi guz-tiari buruzko informazio gehiago lor daiteke www.mundubat.org helbi-dean. ■